



**ERABAKIA, DANENA KIROL ELKARTEAK GIPUZKOAKO FUTBOL
FEDERAZIOAREN KIROL DIZIPLINA ETA LEHIAKETAKO
BATZORDEAREN 2015eko APIRILAREN 1eko EBAZPENAREN AURKA
JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

Espediente-zenbakia: 17/2015

AURREKARIAK

Lehena.- Danena Kirol Elkarteak errekurtsua jarri du Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordearen 2015eko apirilaren 1eko Erabakiaren aurka. Erabaki horretan, Danena KEk jarritako demanda baietsi eta Aloña Mendi Kirol Elkartea zigortu zen, 15.l) eta 17.3.j) artikuluetan ezarritakoan oinarrituta, eta bigarren ohartarazpen publikoa egin zitzaion, jokabide horrekin jarraituz gero Batzordeak behar zena egingo zuela ohartaraziz, partidaren gainerako inguruabarrak aldatu gabe.

Bigarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak errekurtsu hori izapidetzea onartu zuen, eta Gipuzkoako Futbol Federazioari espedientea eskatu zion; era berean, Federazio horri eta Aloña Mendi KE taldeari entzunaldi-izapidea ere eman zien.

Hirugarrena.- 2015eko maiatzaren 5ean, Gipuzkoako Futbol Federazioak eskatutako espedientea igorri zuen, adierazitako Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak egindako alegazio-idazkiarekin batera, eta 2015eko maiatzaren 8an, berriz, Aloña Mendi KEren alegazio-idazkia jaso zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK:



Lehena.- Kirol Justiziako Euskal Batzordeak du errekurtso hau aztertzeko eskumena, hori xedatzen baitute ekainaren 11ko 14/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko kirolari buruzkoak, 138.a) artikuluan, eta urriaren 18ko 310/2005 Dekretuak, Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duenak, 3.a) artikuluan.

Era berean, aipatzekoa da uztailaren 22ko 125/2008 Dekretuak, Eskolako Kirolari buruzkoak, 22. artikuluan eta uztailaren 23ko 391/2013 Dekretuak, eskola-kiroleko lehiaketetako diziplina-araubideari buruzkoak, 4. artikuluan, xedatzen dutena; izan ere, artikuluko horien arabera, honako hauei dagokie kirol-arloko diziplina-ahala erabiltzea: lehen instantzian, parte-hartzaileen gaineko eskolako kirolaren organo eskudunei; eta bigarren instantzian, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari.

Bigarrena.- Errekurtso honek Danena KEk aurkeztutako erreklamazio batean du jatorria. Erreklamazio horretan, 2015eko martxoaren 21ean Infantil Txiki Parte-hartzea kategorian Danena Amaro KE eta Aloña Mendi KE taldeek jokaturako igoera-faseko partidaren azken talde horrek 13 jokalaririk baino ekarri ez zituela eta, beraz, Batzar Nagusiak onartutako arau bat (jokalaririk zerrendan inskribaturako jokalaririk guztien % 80 –kasu honetan hamasei jokalaririk sartzera behartzen duena) bete ez zuela salatu zen.

Danena KEk aurkeztutako aurkaratzea eta Aloña Mendi taldeak egindako alegazioak aintzat hartuta, Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak honako hau erabaki zuen: *“Danena KEk jarritako demanda baiestea eta Aloña Mendi KE zigortzea, 15.l) eta 17.2.j) artikuluetan ezarritakoan oinarrituta, eta BIGARREN OHARTARAZPEN PUBLIKOA EGITEA, jokabide horrekin jarraituz gero Batzordeak behar zena egingo zuela ohartaraziz, partidaren gainerako inguruabarrak aldatu gabe”.*



Hirugarrena.- Kirol Justiziako Euskal Batzorde honetan aurkeztutako errekurtsioan, errekurtsioa jarri duen taldeak Aloña Mendi Keri ezarritako zigorra (ohartarazpen publikoa) aldatzea eta horren ordez partida galdutzat hartzea eskatzen du. Izan ere, eskola-lehiaketei buruzko Dekretuaren arabera, oso larritzat hartu beharreko arau-haustea izan zen 391/2013 Dekretuaren 14. artikulua b) eta i) idatz-zatiei jarraituz, eta, beraz, Dekretu horren 17.i) artikuluan aurreikusitako zigorra ezarri behar da, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziiplina Araudiaren 92. artikulua horrelako arau-hausteetarako kontuan hartzen duen zigor bera, alegia.

Errekurtsioa jarri duen taldeak bere asmoa babesteko adierazten duenez, Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeak lehiaketa horretarako indarrean dagoen 10. zenbakiko zirkularren 4. puntuan oinarritu du bere erabakia, baina horrelako ez-betetzeetarako partida galdutzat hartzea aurreikusita ez egoteak ez du eragozten zigor hori ezartzeko aukera, 391/2013 Dekretuak arau-hauste larritzat hartzen baitu jokalarien zerrendari buruzko araua ez betetzea (eta ez-betetzea berriz eginez gero, oso larritzat).

Alegazioetan gaineratzen duenez, Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeari marjina ematen zaio "bidezkotzat hartzen duen bezala ebazteko" arauaren ez-betetzea ezinbesteko arrazoi baten ondorioz gertatzen denean, ez, ordea, Zirkularrean eskatutako jokalaria kopurua agertu ez izanaren arrazoi bestelakoa denean. Kasu honetan, Aloña Mendi taldeak justifikatu duenez, bost jokalaria gurasoekin joan ziren zubian, eta beste batek lesioa zuen.

Errekurtsioa jarri duen taldeak dioenez, Aloña Mendi taldeak egindako arau-haustea –mota bereko bigarrena– oso larritzat hartu behar da (391/2013 Dekretuaren 14. artikulua jarraituz, b) idatz-zatian "*lehiaketen arauak behin eta berriro ez betetzea, argi eta garbi*" sartzen baita arau-hauste mota horretan, eta m) idatz-zatian [hutsegite baten ondorioz l) idatz-zatia aipatzen bada ere], berriz, "*arau-hauste larrietan berrerortzea*"), eta,



horren ondorioz, 391/2013 Dekretuaren 17.1.i) artikuluan horrelako arau-hausteetarako aurreikusitako zigorra ezarri behar da: *"jardunaldi bati edo proba bati baino gehiagori dagozkion puntuak, partidak edo sailkapeneko postuak galtzea"*.

Errekurtsoa amaitzeko gaineratzen duenez, Euskadiko Futbol Federakundearen Diziplina Araudiaren 92. artikulua (erreferentzia gisa erabil daitekeenak) partida galtzearekin zigortu beharreko arau-hauste larritzat hartzen du *"partidaren hasieran araudian partida hasteko aurreikusitakoa baino jokalaria kopuru txikiagoa aurkeztea"*.

Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak entzunaldi-izapidean aurkeztutako alegazioen idazkian, honako hau jarri zen agerian:

(i) errekurtsoa jarri duen taldearekiko desadostasun bakarra egindako arau-haustea larritzat hartu behar den (Batzordeari jarraituz) ala oso larritzat hartu behar den (Danena Amaro KE taldeari jarraituz) zehaztearen eta ez-betetzearen ondorio juridikoaren ingurukoa da. Izan ere, aplikatu beharreko Zirkularrean, hemen aztergai dugunaz bestelako arau-hauste mota baterako aurreikusten du partida galdutzat emateko zigorra, eta, beraz, ez-betetzeak ezin dira berdintzat hartu kasu batean eta bestean, berdintzat hartuz gero parekatu egin beharko bailirateke aplikatu beharreko zigorrari dagokionez.

(ii) Kirol Diziplina eta Lehiaketako Batzordeak arau-hauste arinetan berrerortze gisa tipifikatu du arau-haustea. Izan ere, Aloña Mendi KE taldeak 4. puntua lehen aldiz bete ez izana kirol-arauen aurkakoak diren jokabideak arau-hauste arintzat hartzen dituen 391/2013 Dekretuaren 16.c) artikuluari lotuta zegoela erabaki zen bere garaian, larritzat hartu izan balitz Zirkularrean adieraziko baitzen, eta partida galtzeko zigorra aurreikusiko baitzen. Bigarren ez-betetzean, berriz, berrerortzea gertatu



da arau-hauste arin batean; berrerortze hori adierazitako Dekretuaren 15.l) artikuluan tipifikatuta dago, eta dagokion zigorra –ohartarazpen publikoa– Dekretu beraren 17.2.j) artikuluan dago aurreikusita.

- (iii) Batzordeak honako irizpide hau aplikatu du denboraldi osoan: lehen ez-betetzea arau-hauste arintzat hartzen da, bigarrena larritzat, eta hirugarrena oso larritzat.

Bestalde, emandako entzunaldi-izapidean, Diziiplina eta Lehiaketako Batzordearen Erabakia berresteko eskatu zuen Aloña Mendi taldeak, eta adierazi zuen jokalaria batzuen gurasoek zubiko egunetan irtetea erabaki zutelako ez zela agertu zirkularrean eskatutako jokalaria kopurua; gainera, Gipuzkoako Futbol Federazioko idazkari nagusiari jakinarazi zitzaion jokalaria guztiak agertuko ez zirela.

LAUGARRENA.- Kirol Justiziako Euskal Batzorde honek ezetsi egingo du aurkeztutako errekurtoa, honako arrazoi hauengatik:

- (i) 10. zenbakiko Zirkularrak ("Errendimenduan hasteko lehiaketa. Infantil Txiki") honako hau ezartzen du 4. puntuan:

"Batzar Nagusiaren erabakiari jarraituz, taldea osatzen duten jokalarien % 80 deialdian eta partidaren bertan sartu beharko da. Araua betetzen ez bada eta salaketa jarri ostean, Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeak erreklamazioa aintzat hartuko du eta ahalik eta ebazpenik egokiena emango du."

- (ii) Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeak lehiaketari buruz indarrean dagoen Zirkularraren 4. puntuan eta 391/2013 Dekretuaren 21.4 artikuluan xedatutakoari jarraituz ebatzi du erreklamazioa. Artikulu horrek honako hau dio: *"Diziiplina-organoek, kirol-arloko diziiplina-*



ahalmena gauzatzean, egoki iritzitako mailako zigorra jar dezakete, gertaeren izaera, pertsona erantzulearen nortasuna, arau-haustearen ondorioak eta inguruabar larrigarri edo aringarriak aintzat hartuta".

- (iii) Kasu honetan, Aloña Mendi KE taldearen bigarren ez-betetzea denez gero, arau-hauste larrizat hartu du Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordeak, "*arau-hausteetan berrerortzea*" baitakar -391/2013 Dekretuaren 15.l) artikulua-; gainera, horrelako arau-hausteetarako aurreikusitako zigoretako bat aplikatu dio, adierazitako Dekretuaren 17.2.j) artikuluan aurreikusitako ohartarazpen publikoa, alegia.
- (iv) 10. zenbakiko Zirkularraren bidez ez-betetze hori partida galtzearekin zigortu nahi izan balitz, esanbidez ezarriko zen hori, 3. puntuan bezala (puntu horren arabera, partida galtzearekin zigortuko da aktan inskribatuta dauden jokalariek ezarritako gutxieneko denboran ez jokatzeari).

Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak, honako hau

ERABAKI DU

Danena Kirol Elkarteak Gipuzkoako Futbol Federazioaren Kirol Diziiplina eta Lehiaketako Batzordearen 2015eko apirilaren 1eko Erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa ezestea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraz, haren aurka aukerako berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordean hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, edota administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Bilboko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita,



Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998
Legeak ezarritakoari jarraituz.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 22a

José Ramón Mejías Vicandi
KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEKO PRESIDENTEA